

## LABURRERAN

## LITERATURA

'Musuka' liburua eman dute argitara  
Patxi Zubizarretak eta Jokin Mitxelenak

SM argitaletxearen eskutik, *Musuka* liburua plazaratu dute Patxi Zubizarreta idazleak eta Jokin Mitxelena ilustraziogileak, argitaletxe horretako Piratak bilduman. Irakurtzen ikasten ari diren haurrentzako liburua da *Musuka*. Euskarazko bertsioaz gain, liburuaren gaztelaniazko itzulpena ere plazaratu du SM argitaletxeak.

## ANTZERKIA

Erriberriko Jaialdi Klasikoak izan duen  
arrakasta nabarmendu dute antolatzaileek

Erriberriko Antzerki Klasikoko Jaialdiko ardura-dunak «pozik» agertu ziren, atzo, aurtengo ekitaldiaren balantzea egitean. «Era askotako ikuskitzunik bildu ditugu, eta, aurrenekoz, txotxongilo zikloa antolatu dugu, eta guztiek harrera ona izan dute», erran zuen Rafael Perez Sierra zuzendaria. 5.500 ikusle izan ditu aurtengo jaialdiak, eta 20 emanaldi izan dira. 2002rako erakunde publiko-aren laguntza eskatu du Erriberriko Udalak.

**ZINEMA.** Sail ofizialekoak dira hiru film, Zabaltegiakoak gainerakoak

Zuzendari Berriak sariak 21  
lehiakide izango ditu aurtengo

Zinemagile hasiberri baten lana sarituko du Donostiako Zinemaldiak

Erredakzioa | DONOSTIA

Donostiako Zinemaldiko Zuzendari Berriak sariak 21 lehiakide izango ditu aurtengo ekitaldian, sail ofizialekoak hiru, eta hemezortzi Zabaltegiakoak. Zuzendariaren lehen edo bigarren filmak dira guztiak, hori nahitaezko baldintza baita Zuzendari Berriak sarirako lehiakide izateko. Saria irabazten duen filmak 25 milioi pezeta jasoko ditu (milioi bat libera inguru, 150.000 euro). Jazztel enpresak babestuko du saria.

Australia, Holanda eta Erresuma Batukoak dira Zuzendari Berriak sarirako lehiatuko diren sail ofizialeko hiru filmak. Honako hauek, hurrenez hurren: Ray Lawrence-ren *Lantana* thriller psikologiko indartsua, Ineke Smits-en *Magonia* lan harrigarria eta Asif Kapadia-ren *The Warrior* istorio epikoa. *Lantana* Ray Lawrence-ren bigarren lana da; *Bliss* izan zuen *opera prima*, 1985ean Cannesko Zinemaldian lehiatu zen film bat. Kapadiak ere egina zuen aurretik film bat: *The Sheep Thief*, luzera ertaineko lana, duela hiru urte Cannesen jende askoren arreta erakarri zuena. Ineke Smitsen kasuan, lehen film lu-



EGUNKARIA  
Gerardo Tort-en *De la calle* filmeko irudia.

zea du *Magonia*, irudimen handiko lana.

## Zabaltegi saileko 18 film

Zabaltegi sailaren barruan emanik, Zuzendari Berriak sarirako lehiatuko diren 18 filmak, berriz, honako hauek dira: Srdan Golubovic-en *Absolute Hundred* (Jugoslavia), Michael Van Jaarsveld-en *Drift* (Holanda), Pasquale Marrazzo-ren *Asuddelsole* (Italia), Naguel Belouad-en *L'attente des femmes* (Frantzia-Aljeria), Christophe Otzenberger-en *Autrement*

(Frantzia), Robert Connolly-ren *The Bank* (Australia), Gerardo Tort-en *De la calle* (Mexiko), Peter Naess-en *Elling (Me, my friend and I)* (Norvegia), Petter Callahan-en *Last Ball* (EEBB), Petr vaclav-en *Paralelni Svety (Parallel Words)* (Txekiar Errepublikak), Tomas Gislason-en *Point of view* (Danimarka), Mansour Sira Wade-ren *Le prix du pardon* (Frantzia-Senegal), Carlos Molinero-ren *Salvajes* (Espainia), Tomasz Thomson-en *Stiller Sturm (Silent Storm)* (Alemania), Maria Lidon Luna-ren *Stranded (Náufragos)* (Espainia), Beto Gomez-en *El sueño del caimán* (Mexiko-Espainia), Luis Eduardo Aute kantariaren *Un perro llamado dolor* (Espainia) eta Fito Paez-en *Vidas privadas* (Argentina-Espainia).

Belgrad, Mexiko, Valentzia, Kolonia, Praga, New York, Oslo, Buenos Aires, Sidney... Mundu osoko hiriak, tankera eta joera askotakoak, erakutsiko dituzte Zuzendari Berriak sarirako parte hartuko duten 21 filmak. Egungo munduaren isla kaleidoskopikotzat jo liteke 21 lan horiek erakutsiko dutena.



EGUNKARIA  
Joaquin Atxukarro.

## MUSIKA

Joaquin Atxukarro  
Pablo Sarasate  
orkestrarekin ariko da,  
Ordinon, urriaren 11n

Joaquin Atxukarro piano joleak Ordino herrian (Aldorran) joko du urriaren 11n, Pablo Sarasate orkestrak lagunduta, Narciso Yepes nazioarteko Jaialdiaren aurtengo ekitaldiaren barruan. Ernest Martinez Izquierdok zuzenduko du Pablo Sarasate orkestra emanaldi horretan, eta erreperitorioan Beethoven, Arriaga eta Ravelen lanak izango dira. Tomatito Sexteto taldea eta Jaume Aragall tenorea ere ariko dira Ordinoko jaialdian, urriaren 20 eta 28an, hurrenez hurren.

Simon Rattle Berlingo  
Orkestra Filarmonikoko  
zuzendaria izango dela  
berretsi dute

Gaiaren inguruan hainbat hilabetez zalantzak izan ondoren, Simon Rattle britainiar zuzendariak datorren urteko irailetik aurrera Berlingo Orkestra Filarmonikoko zuzendari artistiko kargua hartuko duela berretsi dute azkenik. Claudio Abbadoren «oinordeko bikaina» izango da Rattle, Adrienne Goehler Alemaniako Kultura ministroaren ustez.

## HISTORIA

Josep Benet i Morell  
historialaria omendu du  
Kataluniako Udako  
Unibertsitateak

Gerra Zibilaz geroztik Kataluniak «normaltasunetik kanpoko egoera politikoa» bizi du, Josep Benet i Morell kataluniar historialariaren ustez. Halaxe adierazi zuen historialariak berak, atzo, Kataluniako Udako Unibertsitateak egin zion omenaldian. Estatutua «autogobernuan aurrera egiteko tresna» dela esan zuen Benetek, atzoko ekitaldian, eta orain artean ez dela behar bezala garatu.

## MUSIKA

Plektro musikari  
buruzko jaialdia  
antolatu du Iruñeko  
Artearen Lagunak  
elkartek

Edurne Elizondo | IRUÑEA

Nazioarteko Plektro Musika Jaialdia antolatu du Iruñeko Artearen Lagunak elkarteak, hirugarrenez. Aurtengo ekitaldiak, hala ere, badu berrikuntzarik, aurrekoetan bezala Iruñean egin ordez, gure herrialdeko hainbat herri hartuko baitituzte egitarauko kontzertuak.

Plektro musika, gitara, mandolina edo bandurria bezala zibatez jotzen diren musika tresnen bidez lantzen dena da. Jaialdi ugari antolatzen dira musika tresna horien inguruan, baina Artearen Lagunen elkarteak Maria Jose Egilazek EGUNKARIARI erran dionez, «bada oraindik plektro musikaren aukerak ezagutzen ez dituen jende asko; jendeak ez du uste musika tresna horiek hain erreperitorio zabala jotzerik dagoenik, eta, hori dela eta, ezustea hartzen dute askok halako kontzertuetan».

Jaialdia gaur bertan hasiko da, Funesen, Sevillako Fine Plectrum taldearen eskutik. Kultur Etxean izanen da emanaldia, 21:30ean. Biharamunean, hilaren 24an, Azagran izanen da kontzertua; El Salvador elizan joko du, hain zuzen ere, Errusiako Zabaikalian Samotsvet taldeak, 21:30ean ere.

Hilaren 26an, Alemaniako Prima Vista taldeak emanen du kontzertua, Murchanten, Kultur Etxean, 20:30etik aurrera. Garesen, berriz, Cordobako Plektro Orkestrak joko du, hilaren 26an, Santiago parrokiaren, 20:30ean.

Jaialdiko azken emanaldia Alemaniako Baden-Wurttembergeko Plektro Orkestra Gazteak eskainiko du, Agoitzen, hilaren 29an. San Miguel parrokiaren izanen da kontzertua, 20:30ean.

Nafarroako Gobernuaren eta  
Errioxako Jaialdiaren laguntza

«Taldeok era askotako programak eskainiko dituzte. Cordoba eta Sevillako taldeek musika espainiarra jorratuko dute, eta Errusiakoak ere, bere herriko doinuak eskainiko dizkigu. Alemaniarrak, berriz, nazioarteko erreperitorioa osatu dute», azaldu du Egilazek.

Artearen Lagunen elkarteak Nafarroako Gobernuaren laguntza izan du jaialdia antolatzeke, bai eta Errioxako Nazioarteko Plektro Jaialdiarena ere. «Bestela, oso zaila litzateke halako jaialdia egitea».

Egunkariarekin ZINEMARA

250 pta-ko  
DESKONTUA



WARNER  
LUSOMUNDO  
SOGECABLE  
ZINEMAK



Entregatu kupoi hau WARNER LUSOMUNDO zineman.  
Astelenehenerdik ostiralera 250 pta-ko deskontua zine sarreteretan.